

2. Luis Mari Mujika Urdangarin

Arabako Euskal Toponimia



Euskal Filologian doktorea eta katedraduna, eta EHUko OHOKo Eskola Unibertsitatean irakaslea.

Ondorengo liburukien egile da, besteen artean:

- *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica*, Edic. Vascas, 1978, Donostia.
- *La prefijación clave del euskara técnico y urbano*, Edic. Vascas, 1978
- *Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika*, Edic. Vascas 1980
- *Latina eta erromanikoaren eragina euskaran (tesi doktora)*, Sendoa 1982.
- *Lizardiren lirika-bideak*, Haranburu, 1983.
- *Miranderen poesigintza*, Haranburu, 1984
- *Euskal lirika tradizionala*, Haranburu, 1985.
- *Sistema filosofikoak*, Haranburu, 1986.
- *Toponimia.Fonetika. Lexikoa*. Edit. Haranburu, 1987.
- *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia I*, Rina, 2006.
- *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia II*, Rina, 2007
- *Euskal Toponimiazko materialeak, 18 liburuki, 1992tik aurrera (18 liburuki) (Gipuzkoako toponimiaz)*
- *Arabako euskal toponimia. Fonetika eta etimologia*, 12 liburuki, 2009.

1. Sarrera

Lan honetan Arabako toponimiak euskararen esparruan duen tokia islatu nahi genuke, hots, gure hizkuntzak Arabako probintzian aspaldidanik tokizenetan ukaniko presentzia nabarmenarazi. Araban euskararen egitatea, beste probintzietan bezala, aspaldiko haritik dator, hau da, Euskal Herria tribu anitzetan banatua zegoen arotik. Hain zuzen, erromatarrak gure lurraldera etorri aurretik, ezagunak ziren bertan baskoiak (Nafarroaren eremuan, batez ere, hedatuak), barduliarrek, karistiarrek eta autrigoi tribualdeak (azken hauek, erromatarren garaietarako, bere zabalkunde gehienez erdaldundurik bide zeudenak). Historiagile batzuen aburuan, euskal kutsua zuten, nahiz partzialki, turmodigoek eta beroiek ere.

2. Datu zenbait


Araba bi kulturen eszenategi bilakatu zen Ertaro Goian, hau da, euskararen ukitu geografikoan sorturiko gaztelaniaren gune berezi. Autore batzuen ustean -eta Schulten-en hipotesian, bereziki- barduliarrek eta karistiarrek -autrigoiak bezala- jatorri zeltiarra zuten, nahiz erromatarren garairako lehenengo biak *euskaldun* bilakaturik egon mintzoz, baskoien eraginez.

Arabian hiru tribuen bilgune bilakatu zen Trebiñualdea, hots, *Trifinium* delakoa, hiru tribuak biltzen zirelako bertan.

Euskararen muga zaharrak Araban beste euskal lurretan baino labainagoak dira, probintzia maiz herri desberdinen pasagune izan delako hegoan eta mendebaldean, Gaztelaren ukitu geografikoa lekuko dela. Hegoaldera euskararen presentzia zalantzazkoagoa izan da, eta egungo euskal toponimiaren lekukotza urria ikusita, aspaldiko garaietan ere -Ebro ibaiaren bi urbazterretan- euskal geruzazko izendegia ez zen oparoa.

Ikusiko dugunez, arabar Errioxako behe-lurretan ere azaltzen dira euskal toponimoak, baina urriago; ugariago, ordea, Logroñoeko probintziaren mendebaldean; Ertaroko lehen mendeetan, hain zuzen, euskarak Haroaldean, Ojacastron eta Ezkaraiko eskualdean, bereziki, hedadura berezia ukan zuen.

Latinizazio erraldoiaren kariak Arabako Errioxan aski goiz itzali bide zen euskara, eta bertako lekuko toponimikoak murrizak gertatzen dira egun azterketa baterako.



3. Erromanizazioaren gorabeherak

Euskal Herrian erromanizazioa behetik gora, eta mendebaldetik ekialdera, mamitzen etorri zen, eta ipar eta itsasaldeko lurraldetan erromanizazio bera oraindik luzaroan permeagaitza gertatu zen. Araban iparralde eta erdialde gehienak euskal tipologiako onomastika erakusten digu. Araban, ordea, *Deobriga* (Puentelarra), *Veleia* (Iruña de Alava), *Suessatio* (Zuazo), *Tullonium* (Dulantzi), *Alba* (Albeniz), eta abar eragin arrotzeko puntu izan ziren, eta kanpo eragin hori mendebaldean, hots, Gaubealdean, nabaria eta zaharragoa da.

Arabako erdialdean, eta lautadan bertan, jatorri latinoak duten antroponimoen lekukotasuna ez da urria eta *fundus* eta *villak* erromanizazio baten gune berezi izan ziren, nahiz bere ondoan ere aspaldiko euskal mintzairaren lekukotasunak gorde oraindik.

Tribuen hedadura hertsiago emanez, Gipuzkoako erdialdean hedatu ziren, batez ere, barduliarrak, Arabako ipar ekialdera ere zabalduko zirenak. Karistiarrak, berriz, Arabako erdialdean kokatu ziren, eta autrigoiak mendebaldean goitik behera (behar bada, behealdeko lurretan beroiekin harremanak izan zituztela). Zehazkiago, autrigoiak Nerbioi ibairen erdialdean lekutu ziren, hau da, egungo Enkarterrietan, eta Arabako Gaubea, Valderejo eta bi Erriberetan. Burgosen Pancorbo aldea autrigoien mende egon zen, eta, behar bada, tribu zeltikoekin nahasia. Hain zuzen, azken tribu honen gune latinizatuan hasi bide zen gaztelaniar mintzairaren sorrera astitsua VI, VII eta VIII mende aldean.




Azkenik, beroiak Toloño eta Kantauri mendizerraren hegoaldean hedatu bide ziren, jatorriz zeltak zirela (eta, gehienbat, euskararen ez-ezagule). Arabako lurretan *Veleia*, *Suessatio*, *Tollonion* gisako populazioak jatorriz zeltiarrak izan ziren, indoeuropar kutsua zuten herrialdeak.

Jakina denez, Penintsulan eman zen erromanizazio astitsuak ez zuen euskal lurralde osoa hartu; Kantauriko itsasaldera ematen zuten Bizkaia eta Gipuzkoako lurrak permeagaitzagoak suertatu ziren lehen mendeetan. Hain zuzen, Arabako hegoaldea eta erdialdeko lautada irekiagoa gertatu zen erromanizatorako; iparraldea, aldiz, permeagaitzagoa latinaren sarrerako.

Euskal Herriaren hegoaldean (hots, Nafarroako Erriberan eta Arabako Erribera eta Errioxa gehienean) erromatarren eragina nabarmenagoa egin zen, kolono eta legionarioen eraginez. Egia esateko, toponimian -ano, -ana amaiera duten tokizenei kutsu latindar nabariagoa islatzen zaie. Arabako lautadan aipatzekoak dira *Veleia* (Arabako Iruña), *Suessatio* (Zuazo), *Tullonium* (Alegria-Dulantzi) eta Alba (Albeniz) gisako toponimoak. Lehen latinizazioa aztertua izan da G. Trolhs, J. Caro Baroja eta L. Mitxelenaren lanetan.

IV. eta V. mendeetan Europako hego mendebaldeak erruralizazio gaitza jasan zuen, berriro, lehendiko latinaren eragina apalduz; ordurako, ordea, euskararen geografia, Araba eta Nafarroako hego-lurretan murrizten hasia zen. Kalagurrin edo Kalahorran, Araban eta Nafarroako hegoaldean kristautze eta erromanizazioaren ildoak bidekide bilakatuko zinen, maiz, sozialki. Aldiz, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren iparraldeak lehenengo egoera sozial eta linguistikoan luzaroago iraunen zuten.



Era berean, Araba kantauriarra eta hego eta mendebaldekoaren artean etendura linguistikoa handitzen etorri zen. Zehazki, Nafarroa eta Gaztelaren balantzan sartuko zen Araba VII. mendetik XII. arte, bere mendebal eta hegoalde guztian erromanizazioa gotortzen zelarik. Dudarik gabe, karistiar eta barduliar eragina ukan zuen eskualdea euskaldunago mantendu zen erdian eta iparraldean, eta, aldiz,



kanpoko eraginei irekiagoa autrigoiak egoniko eskualdea. Latinizazioa behetik eta mendebaldetik gotortzen etorri zen Arabako lurretara, eta, orobat, XI., XII. eta XII. mendeetan latinizazioa biziagotzen, aspaldiko euskal mintzairaren gune ziren lurak, gero eta gehiago, ipar eta ekialderantz murrizten zirela.

Toloño eta Kantauri mendikatearen azpitiko lurak biziki erromanizatuak suertatu ziren lehen ertaro osoan. Araban Erribera Garaia eta Behekoa, Gaubea eta Valderejo aldeko lurak erromanizazio gotor baten lekuko izan ziren. Ondorioz, euskararen presentzia iraunkorragoa gertatu zen ipar eta erdialdeko mendien ingurune eta adarduretan, eta bertan euskararen egoera ez zen hain kritikoa eginen XVII. mende arte (eskualdean sartuz Gasteiz hiriburua eta bere hego eta iparraldeko inguru guztia). Kontuan izatekoa da, gainera, latina desegiten eta gaztelaniar mintzo bilakatzen zen unean euskarak bere eragina utziko ziola mintzaira erromaniko berriari, batez ere, fonetikaren esparruan (adibidez, bost unitatezko bokalismoa egotziz).

Ertaroaren amaieran, euskararen marra geografikoa Trebiñualdea, Urizaharra eta Gasteizen hego eta iparraldera hedatzen zen. XVI mendea geroztik hona, ordea, euskararen bizitza kritikoa bilakatuko zen, batez ere, gaztelania, espainiar nazionalismoaren eskutik, zabalkunde bihurtzean -hots, inperio baten ardatz eta sostengu-. Euskara, geroz eta gehiago, murrizta eta nekazari bizitzara zokoratuagoa gertatuko zen. Euskal mintzairaren bilakaera gerora, XIX. mendean bereziki, kritikoa egin zen Araban hedakuntza geografikoari dagokionez, batez ere. XVI. mendean, oraindik, euskara Gasteiz hirian entzuten zen, eta gerora ere bai, nahiz demografikoki urriagoa bilakatzen etorri.

Arazo honetaz, besteen artean, ikusi hurrengo lanak: J. M. Sasia “El viejo euskara alavés”, in Homenaje a O. Apraiz, Alabako Foru Aldundia, 1982, A. Apraiz, “El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria” (1850-1950)”, in Obras inéditas, Gasteiz 1975, M. L. Etxenike, Historia lingüística, 91-92.

Kondairara itzuliz, badakigu erromanizazioa Euskal Herrian anitza eta ez-erregularra izan zela eskualde bakoitzean. Bere hornikuntza biziagoa izan zen hego eta mendebaldeko lurretan, eta apalagoa Euskal Herri menditsuan eta akitanikoan. Dudarik gabe, euskal hiztegiak sarturik dagoen latinismo zenbait, bai administrazioan eta bai tresnen deituran, aro zaharretakoa da (honela, *bakea* pazea ordez, *erregea* rey erromanikoa ordez). Hiztegiak fonetika aski arkaikoa islatzen du hitz anitzetan. Aldiz, *gurutze*, *zeru* gisako latinismoen asibilazioek latin berantagoaren ñabardura fonetikoak dituzte.

Jakina denez, kristautze-prozesua behetik gora etorri zen, Euskal Herrian mendialdeko nukleo anitzetan erlijioa berriaren ziria ez zen behar hainbat gotortua gertatuko X-XI. mende aldera arte baino. Araban leku askotan gaztelu babesak eraki ziren, bereziki, XI. eta X. mendeetan. Babesleku baje eraginez, arabiarren raziak gero eta urriagoak bilakatuko ziren bertako lurretan.

Behaldeko errekonkistarekin batera, latinetik sorturiko erromantzeek gorantz etorri ziren, euskararen esparrua gero eta gehiago estuagoa eginez. Egia bat atzematen

da, dena den, historian garbi, alegia, euskararen bilakaera mendialdeko lurretan kondairaren gorabeheren ertzean geratu zela, batez ere, lur aski isolatu ziren iparreko sailetan. Erromanizazioa, hain zuzen, Euskal Herrian hegoa eta mendebaldetik sartzen etorri zen, etengabe, goi eta behe ertaro ia osoan. Gerora, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia -Nafarroaren inguruetik urrunduta- Gaztelaren mendera hesituko ziren, euskararen mugak, geroz eta gehiago, iparreko lurretara soilik hertsatuz, bide horretatik euskararen gune geografikoa kritikoagoa bilakatuko zen, batez ere, XVIII., XIX. eta XX. mendeetan. Bestalde, XIX mendeko Euskal Herriaren industrializazio azkarraren kariatz -eta Espainiako beste eskualdetako jende-uholde berriaz- itsas-bazterreko probintzien euskaldun oreka demografikoa, gero eta gehiago, okertzen etorriko zen.

Arabian, zehazki, euskararen gibelatze historikoaren ondorio zaharrenak bertako Errioxaren eremuan emanak ziren aspaldidanik, eta, orobat, bere mendebaldean bi Erribera eta Gaubealdean. Bestalde, hizkuntzaren arloan, latinetik sortuko gaztelaniar erromantzeak ñabardura fonetiko ukaezinak jasoko zituen euskararen baitatik —bai bokalismoan eta bai kontsonantismoan-.

Arabako probintzian hedatzen zen euskara moeta gehiena mendebaldekoa izan da. Hala ere, toponimia lekuko dela, Arabako ipar-erdialdeak eta ekialdeak (honetan, Asparren, Donemiliaga eta Aranalea bezalako lurrak sartuta) ekialdeko euskararen ñabardurak zituen. nabardura horietan aipatzekoak dira -*doi* atzizkiaren presentzia, eta *berri / barri, aritz / aretx* bezalako isoglosen alternantzia.

Arabian erromanizazio goiztiar baten gune dira Gesaltzalea, Gaubea, Buradon, Valderejo, Burguenda gisako lurrak mendebaldean, eta Santa Kruz Kanpezualdeko eskualdea erdi-ekialdean. Toponimo batzuen amaierak edo atzizkiek jatorri kanpotarra islatzen dute, *villa* kasuetan adibidez, eta, zehazki, -*ano*, -*ana* gisako amaierak dituztenetan (*Cabriana, Antezana, Maturana* modukoetan). Ertaro garai guztian Arabako egoera linguistikoa konplexua izan zen, beti ere, probintzian, gaztelaniar erromantzearen hedatzea -eta euskararen murriztea- bukagabea bilakatzen zela. Euskararen gibelatzea, bestalde, larria gertatu zen Arabako lurretan (eta, antza, Nafarroan baino azkarragoa gehienbat); hala ere, Gasteizko ingurune gehienak euskaldun jarraituko zuen mintzoz XVIII. mende arte, eta, geroago ere nukleo isolatu zenbaitetan.

Gauzak areago zehaztuz, erromanizazioa gaitz eta azkarragoa eman zen Arabako hego eta mendebaldeko lurretan, eta murriztagoa ipar mendebaldean eta ekialdean. Trebiñuko konderrian, adibidez, euskal hizkuntza zaharraren presentziak XVI mende azken arte iraun bide zuen.

Goian emaniko prozesuaren argibide dira Arabako euskararen atzematen diren ziklo batzuk. Toponimian, noski, antroponimia latinoak indar handia ukan du, berandu arte euskaldun irauniko lurretan ere (Murgian edo Kuartangon, adibidez). Logikoki, Espainiako politika zentralista gaztelaniaren zehar gotortzen zetorren neurrian euskararen desagertze-prozesu ere makurragoa bilakatzen zen. XIX. mende amaierarako, beraz, Arabako probintzia gehiena lurralde erdaldun bilakaturik zegoen.

Aro Modernora iristean (eta Nafarroa XVI. mendea geroztik) Euskal Herriaren zati handi bat Gaztelaren eragin zentralistaren pean zegoen, fenomeno horrek euskarari oraindik sostengu urriago ekarriko ziola. Bestalde, Euskal Herriaren etxeko kultura autoktonoa edo euskalduna ez zen ia inoiz gizarteko goi-klaseen kultur ardatz izan; orobat, penintsulako periferian zeuden beste kulturak ere gaztelaniaren mesedetan gune berriak galtzen etorriko ziren etengabeki.

Austriarren monarkia erorita, XVIII. mendean Borboien botereak areago eramanen zuen gaztelaniaren hegemonia jarrera akaparatzailerik batez, zentralismoa gotortzen zela XVIII. mendetik gerora, batez ere. Euskal Herriari politikoki zatikatuta egoteak makurbideak ekarri zizkion kultura eta ekonomiaren mailan euskal lurra ahalbide politiko desberdinetan zatikatuta egotea euskal kulturari arazo berriak sortu zizkion. Araban eta Nafarroan erkitze progresiboa ekarriko zion euskarari, bertako mintzabidea ia inoiz ez zela izanen gizartearen ardatz; ondorioz, Araba eta Nafarroaren erdialdean hizkuntza zaharra gero eta indarge eta urriagoa bilakatzen etorri zen, batez ere, XVIII. mendean geroztik.

Euskal Herriaren Adiskideen elkargo berriak (hiru probintzietan, funtsean, hedatuak) sostengu gutxi emanen zion, praxian, euskarari, nahiz bere garaian ekimen zenbait aurrera ekarri (adibidez, euskararen balio teorikoa defendatuz). Dagoeneko, euskararen etorkizuna larria izaten hasia zen XVIII. mende erdialdean, eta okerragoa egingen zen, oraindik, gerrate karlisten ondoren. Beraz, XVIII.etik XX. mendera arte euskaren gainbehera nabaria egin zen, eta modu askoz larriagoan, oraindik, gaiztotuko zen industrializazio berriaren aroan.

Historikoki, Trebiñu eta Bernedoaldeko lurretatik XVI. mende aldera desagertu zen gure hizkuntza, eta gerora ere prozesu berriz gaiztotzen etorri zen Gasteiz hiria eta bere ingurunean; geroago prozesu bera larriagoa egingen zen Gorbeia eta Aizkorri mendikateen azpialdean. Giovanni B. Venturino italiar bidaiariak aitortzen duenez, Gasteizen jende xehea euskaraz mintzatzen zen XVI. mendean; noblezia, aldiz, gero eta gehiago gaztelaniaz soilik espresatzen zen. 1562 aldean argitaratu zuen *N. Landuchio* italiarrak *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* hiztegi entzutetsua. Bere liburukia interes handikoa gertatzen da garaiko euskarara hurbiltzeko, nahiz liburuak akats zenbait duen hitzen adierazpena ematerakoan. Bitartean, euskara eliz-erakuspide ere izan zen herrixka anitzetan, eta, hizkuntza zaharraren presentzia erromantzearena baino gotorragoa egin zen gune batzuetan. Euskara, dena den, ipar ekialdetik mendebalderantz murrizten etorriko zen, iparraldean ere, Asparrendik hasi -eta Donemiliaga zehar- Barrundia arte, sozialki, apaltzen zela.

XVII-XVIII. mendetan, zehazki, Gasteizko ingurualde gehiena gaztelaniatu zen, euskal hizkuntza Gorbeialdeko ibarretara zokoratua agitzen zela.

Landazuri arabarrak XVIII. mendean gaitzetsi zuen euskal mintzairaren egoera gaiztoa Arabako probintzian, bere etorkizunaren aitzinean pesimista azalduz. XVII. mende amaieran, ordea, Gasteizko bikariako herri xume anitz euskaraz mintzatzen ziren oraindik.

Prestamerok Gasteiz inguruan euskara mintzatzen zutenen herri nomenklatorra utzi zigun bere "Pueblos de Alaba por vicarías, repartidos sus vecinos en cinco clases" lanean. Hurrengo zioen berak: "Hablan el idioma bascongado muchos pueblos de la vicaría de Vitoria, todos los de Gamboa, los de Salvatierra, los de Mondragón, Cigoitia, Zuya, Orduña, Ayala, Orozco y Tudela, en los cuales a lo menos serían inútiles los Curas de concurso abierto, que ignorasen este idioma".

Euskararen desagertzea, behetik gora, eta modu ez-erregularrean, jazo zen Aranaldean, Agurainaldean eta Gorbeiaiko adardurretan; eta euskararen desagertzeak neurri eta aldi desberdinak ukan zituen. XIX. eta XX. mendeetan, beti ere, gero eta arin eta hedatuagoa egingen zen euskal mintzoaren galera. Azkenekoz, Aizkorri eta Gorbeialdeko mendikateak ere desagertzearen lekuko izanen ziren, beti ere, Aizkorripea Gorbeialdea baino amoremanberagoa azalduz prozesu horretan.

Sozialki, ibar berean euskal mintzairaren heriotza faktore askorengatik gertatu zen. XIX. mendeko euskararen egoeraz, zehazkiago, Printze Bonaparteren mapen lekukotza dugu; beraietan garbi ikusten da euskararen desagertzea probintziaren iparraldean ekialdetik sartu zela (hots, Asparren eta Donemiliagatik barrena), eta astiroago Gorbeialdeko lurretatik. Legutianoaldea, aldiz, euskaldun gorde da ia XX. mende gehiengan. Aramaio ibarrak gain, hain zuzen, Legutiano eta Gorbeialdeko gunee zenbait euskararen toki isolatu dira. Ganboan, Zigotian eta bere inguruetan, berriz, XX. mendean euskararen presentzia erabat problematikoa zen aspaldiko euskaldunen ahoan.

Egun, ordea, euskara berriro irakaskuntzan eta administralgoan integratua dagoelarik, esan behar da Araban -Nafarroan baino arinago- indarberritzen ari dela azken hogeitun urteotan. XX. mendearen azken hamarkadetan -eta XXI.aren hasieran- euskararen errekonstruzioa esanguratsua gertatzen ari da, irakaskuntzaren mailan, bereziki, euskaldungoaren kopurua egun probintzian 70.000 ingurukoa dela. Nafarroarekin alderatuta, Araban (Euskadiko gobernuaren administralgoari esker) hizkuntza zaharraren errekonstruzio-erritmoa sendoa da, birlortze horren ildo ziurrenak irakaskuntzaren arloan ematen direla. Gure ustean, egun ematen den berreskuratu neurria, beste hogeitun urteren buruan, 140.000 euskaldunberritara irits daiteke (ertaroan emaniko 25.000 bat milako euskaldun-kopurua nagusiki gaindituz). Alde horretatik, itxaropentsua gertatzen da euskararen geroa.

4. Arabako euskararen izaeraz datu zenbait

Arabako euskararen berezitasunak xedatzeko, mendebaldeko euskararen (edo bizkaieraren) moldera etorri behar da. Arabako probintziaren zati bat, aspaldiko karistiarren kokagune zen, mendebaldeko euskararen moldetan sartzen zela bere fonetika, lexikoa eta beste bereizgarri dialektal batzuk. Arabako ekialdean barduliarren tribua hedatu zen, Gipuzkoa erdiko hizkuntz egoeraren luzapen bezala. Fonetikoki, toponimian agertzen diren *aritz*, *aitz*, *lizar*, *-doi* gisako isoglosak ekialdeko euskalkien adierazpen dira. Mendebalderago, aldiz, toponimiak *atx* / *aretx* / *-doi* gisako ñabardurak islatzen dituzte. Ipar-ekialdera, hain zuzen, Araban



Gipuzkoatik zetorren barduliarren mintzairaren hedapena islatu bide du (nahiz egoera dialektal horrek, geroz eta gehiago, XVII-XVIII.tan *mendebaldeko* euskararen ñabardura fonetikoaren eragina jasan).

5. Ohar filologiko batzuk

Autore zenbaitek Araban hiru eremu bereizten ditu, hots, sartaldekkoa, erdialdekkoa eta sortaldekkoa. Honela, Trebiñualdea, Gasteiz, Dulantzi eta Burgelualdea erdialdean koka daitezke; Gorbeiaeren hegoaldea, Legutianoldea eta Aiaralde guztia mendebaldeko mintzairan; eta Donemiliaga, Agurainaldea, Iruraitz, Aranaldea, eta abar sortaldekokoan. K. Zuazok zehaztapen zenbait eskaini du mendebalde eta ekialdeko esparrua hobeto zehaztearren. Honela, *-aa* mugatzaileak *-ea* eman du (*aldapaa* < *aldapea*, *errekaa* < *errekea*). Bestalde, *z / tz* afrikazioen bustidura azaltzen da *x / tx* emanaz (*aritz* / *aretxa*, *bakoitza* / *bakotxa*, *haize* / *axe*). Toponimian, gune batzuetan, aspaldiko *areitz*, *eliza*, *aitza*, *aizea* delakoek XVII.tik gerora mendebaldeko bustidurak eta monoptongazioak jasan dituzte.

Toponimian, aipaturiko ñabardurez gain, sinkopazio bereziak gertatu dira, *-zaa* < *-zaia*, *-aga+a* < *-agea*, *-tza+a* < *-tzaia* gisakoak.

Ondoren, Arabako toponimian atzemangarri den fenomeno fonetiko zenbait azaltzen ahaleginduko gara, tokian tokiko desberdintasunei dagokien garrantzia egotziz.

5.1. Bokalismoa

a) Azken bokalaren erorketak: *Bidaur* (**Bidaurre*), *Rotaur*, *Bidaluz* (**Bidaluze*), *Lar* (**Larre*), *Pagolar*, *Otalar*.

b) Ezpainkarikatzeak hitz hasieran: *intxaur* < *untxaur*, *iri* < *uri*

c) Dardarkari aitzinean bokaleen irekiera: *berdin* / *bardin* (eta, orobat, leherkari baten aitzinean: *beltz* / *baltz*).

d) Hiatoen presentzia mugatasuna adieraziz *-aa* < *-ea*, *-agaa* < *agea*- (*Keresea* (**Keresaa*), *Mendiagea*, *Obiagea*, *Zubiagea*). Orobat, *-tza+a* atzizkien pilaketan *-tzaia* ondorioa (*Elortzaia* > *Elhortzaa*, *Okaranzaia*, *Unzaia*).


e) Diptongoa eta afrikazioa ekialdean, monoptongazioa mendebaldean (*areitz* / *aretx*, *aitz* / *atx*, *as*).

e) - *Gan* / gain bikoizturak. Mendebaldean *-gan* gehiago da (hots, Legutianon, Barrundian, Trebiñun, Gasteizaldean); *-gain* gehiago, berriz, zenbat eta ekialderago (Burundan, Burgelun, Bernedoaldean). Tartean, bi moldeen nahasketa eman daiteke

5.2. Kontsonantismoa

- a) Zalantza *zai* (-*zain*) /*sai* artean. *Abelzaia* / *Astasaia*.
- b) *L* / *ll* bustidura / ez bustiduraren kolokadura (*ezkilla*, *ila*)
- c) *X* arkaikoa da, / *j* geroztikoa (*Elexa* / *Elejea*, *Kerexa* / *Kerejea*). Mono-*ptongazioa* eta bustidura mendebaldeko ñabardurak dira Arabako toponimoetan; ekialdean, berriz, diptongazioa ageri da.
- d) Hasieran ezpainkari zaharretan ahostunak ematen dira (*Bagoa* tokizen zaharretan, *Pagoeta* berantagoetan).
- e) *L* ekialdekoa da, *d* mendebaldekoa (*bular* / *budar*). Zigoitian eta Arratzuan, burar ere ematen da.
- f) *Padura* / *Madura* bikoiztura aski hedatua dago mendebaldean. Bi formulen lehia ageri da, batzuetan, erdialdean; *madura* asko da ekialdean.
- g) *Solo* mendebaldean, *soro* ekialdean (azken hau formula zaharrenetan, soilik). *Solo* ere kausitzen da Asparrenan eta Haranan (baina, beti ere, lekuko linguistiko berantagoetan). Zalduondon, Donemiliagan, Agurainen *soro* / *solo* formulen lehia nabaria da toponimian.
- h) Araban, orobat, ematen din ezpainkari ozenak (*bago*, *bike* bazelakoak), beti ere, ahoskabeak (*pago*) baino arkaikoagoak direla; erdialdean bi formulen lehia ageri da.
- i) *b* / *f* fonemen arteko lehia. Zenbat eta ekialderago *f* nagusiagoa da, nahiz aski apala izan (Donemiliagan, Agurainen, Aranaldean...)
- j) *Bedar* / *berar* alternantzia; lehenengo aldakia da nagusi mendebaldean.

Bestalde, hiztegiaren esparruan, *gibel* / *oste* bikoizturetan lehenengoa da arkaikoa, eta bigarrena geroztikoa. Ekialde erdian ere *gibel* zaharragotzat jo behar da. Bestalde, Arabako ekialdean - Aranaldean, batez ere- aditz jokatuak txertatuta dituzten arkaismoak islatzen dira, *Euridakarrena*, *Iturriadana*, *Lezeadana* gisakoak. Beste aditz sintetikodun formulak *Illadazanzelaia*, *Goikozelaiadana* modukoak dira. *Ekarri* aditz sintetikotik, berriz, *Euridakarrena* ageri da. Gisa horretako toponimoak Araban ekialdekoak dira, batez ere (hots, Aranaldekoak).



Orobat, *Urkaaak tirana* lekuizena, ekarri aditz sintetikotik *Euriadakarrena* (eta etzan aditzetiko *Illadazanzelaia*). Aditz sintetikoa atxikia duten toponimo horiek arkaismo berezia islatzen dute (ezen nomenklator edo izendegi modernoetan hitz elementuak soilten etorri dira, hizkuntzaren ekonomiagatik); onomastikan aditzaren ekonomia derrigorrezkoa suertatzen da, kasu ehienetan. Adiztun toponimoak, bestalde, arkaikoak dira, ze hitz konposatuen alorrean aditz osagarriak maiz desagertzen dira. Aditz erlatibodun atxikidurak, noski, arkaismo bezala ageri dira toponimian.

Ikusiak ikusi, euskarak Arabako probintziaren baitan atzerabide luzea jasan duela esan dezakegu, zoritxarrez. Nahiz euskara denbora historikoetan bere lurralde gehienara hedaturik egon, hots, mendebalde eta Errioxako zenbait lekutara ere, egun euskal toponimiaren hedakuntza hertsia da.

Hala ere, Arabako lurralde gehiena euskararen kokagune izan da kondairan, eta, aldi berean, Gaztelaren albokide ere bai. Araban erdi-mendebalde eta ekialde - Kantauri Mendikateraino, batez ere-, eta, orobat, erdialde eta iparralde euskararen gune izan dira mendetan, eta egitate linguistiko horren berme da hemen eskaintzen dugun arabar euskal toponimiazko saldo gaitza.

Egun Araban euskara errekonstratu-berria duen 70.000 inguruko euskaldun-multzoak, nolabait, aintzinako euskal toponimiaren egitatea gogora ekartzen digu, hots, probintzian orain mende batzuk indarrean zegoen euskal egitate linguistikoa. Berrikitan, ikastola eta euskara erakusten duten beste erakunde bitartez aspaldiko egora linguistikoa berreskuratzeko bidean jarri gara.

Berreuskalduntze-prozesuak gaurko heinean jarraitzen badu Asabako lurretan hemendik hogei bat urtera aipaturiko kopurua igo daiteke 150.000 euskaldunetara ere.

Beste datu guztien gaindik, lan honetan bilduriko euskal toponimiazko materialak argitan utzi du, gure ustean, Araba ere aspaldiko mendetan euskaldun izan zela mintzoz, bere geografia gehienez.

Orain arte Lopez de Gereñu jaunak emaniko toponimia historikoaren multzoa gaitzen da lan honetan. Hona zifratan bi lan aportazioak parekatuz: Barrundian Lpz. Gereñuk 195 euskal toponimo, hemengo zerrendetan 1.050; Donemiliagan Lpz. Gereñuk 350, hemengoan 2.190; Legutianon Lpz. Gereñuk 220, hemen 1.470; Gaunan Lpz. Gereñuk 77, hemengoan 660; Kontrastan Lpz. Gereñuk 280, hemengoan 660; Arluzean Lpz. Gereñuk 158, hemengoan 450; Markizen Lpz. Gereñuk 173, hemengoan 430. Eskualde batzuetan Lpz. Gereñuren zerrendako toponimo multzoa ez da iristen -gurearekin erkatuta- %15era ere. Hala ere, Lpz. Gereñuren toponimo multzoa zabala gertatzen da Aranaldea, Erdi-hegoaldea eta Erdi-ekialdeko kasuetan.

Guk, euskal zerrendak eskaini ondoren, kasu anitzetan eskualdeko erdal tokizen zenbat eransten dugu aparte, izendegi osoak ikusmira egiatiagoa ukan dezan, nolabait.

Zorionez, Araban berreuskalduntze prozesua aurrera doa, eta komeni da historikoki jasoriko euskal toponimiazko altxor bikaina gerora ere gordetzea. Dudanik gabe, gaur egun toponimia da behin bateko Araba *euskaldunaren* egiaztagiririk argi eta baliotsuena

Azkenik, lan honetako zerrenden egokitzapen eta zehaztapenetan, batez ere, Maria Luisa Etxebarria eta Nerea Mujika Arandaren partetik ukaniko laguntza paregabe eta amoregaitza eskertu nahi genuke. Lankide saiatuak izan ditugu. Eskerrik asko.